


herrera

Jai batzordea lanean hasia da, eta dagoeneko aurtengo jaien egitaraua prestatzen hasiak dira. Beti bezala, auzotar gehienen parte hartzea lortu nahi da, eta horretarako elkarte guztiei luzatu zaie gonbitea. Bilerak Herrerako auzotegian izaten dira asteartetan, 20.00etatik aurrera.

Mozkor Frontekide-ek antolatutako finaletako sailkapena gero eta interesgarriago jartzen ari da. Oraindik ere finala zein bikotek jokatuko duten zehazteke egon arren, auzoko frontoiean asteak aurrera egin ahala apustuak gora egiten ari dira. Oraindik ere finala zein bikotek jokatuko duten zehazteke egon arren, auzoko frontoiean asteak aurrera egin ahala apustuak gora egiten ari dira. Oraindik ere finala zein bikotek jokatuko.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



Herrerako Mendi-Zaleak finalera heldu dira

Herrerako Mendi-Zaleak elkarteak igande honetarako, apirilak 27, finalistaren eguna antolatu du. Goizean goiz Artesiaga eta Belate mendate arteko ibilaldiari hasiera emango zaio, mendizale amorratuek tontorren bat egiteko aukera ere izango dutela. Eguerdiko 14.00ak inguruan Almandoz herriko Beola jatetxean babarrun jatea egingo da. Bazkaria eta autobusaren prezioa 2.500 pezetakoa izango da. Autobusa goizeko 08.00etan aterako da Herrerako plazatik.

amara berri

Trikitixa eta akordeoi jaialdia eskainiko digute Amara Berriko Soinu Alai Eskolako ikasleek gaur, apirilak 25, arratsaldeko 19,30etan udaletxeko areto nagusian. Bertan, pasa den martxoan ospatutako Tarbeseko nazioarteko akordeoi txapelketako irabazleek hartuko dute parte. Amara-tarren artean, urrezko domina irabazi zuen Mikel Gumbre eta zilarrezkoaren jabe egin

zen Ioritz Iburgurenek hartuko dute parte, sarituak suertatu ziren beste kide batzuekin batera.

Egitarauari dagokionez, euskal obra tradizionalaz gain, nazioarteko beste zenbait ere eskainiko dituzte, hainbat estilotan murgilduz.

Monastegien I. Ibilaldiko bostgarren etapari ekingo zaio igande honetan. Mon-

jardinetik Kodeserako bidea egingo da, 24 kilometro guztira (sei ordu inguru). Kodeseko santutegia Kantabriar Mendikatearen haseran dago, eta bertan Andra Mariren taila ospetsu bat ikus daiteke. Santiagomendi Elkarteak antolatzen du ibilaldi multzo hau eta zortzi etapaz osaturik dago guztira.

JULEN ARZELUS (TFNOA.: 454851)

ARIZALA J.M.

HORTZ-KLINIKA

MEDIKU ESTOMATOLOGOA

Odontologia orokorra
Enzien goxotasunak
Implanteak - Ortodontzia
Haurren Hortz programa

SEGUROAK:
Lagun Aro - Diputazioa
Asisa - Prebisa
Ipresa eta abar

Ferreries - Olleta plaza, 5 solairu artea
Amara Berri Ikastetxearen parean
Tfnoa.: 45 90 45

EUSKARAZ BADA KIGU

HONTZA ELKARTEA

Eliza kalea 5 • Tfnoa.: 46 82 37 • LOIOLA auzoa, Donostia

FOTO amara

- Kalitatezko origarriak
- Aurrekontuak konpromezurik gabe
- Erreportaia egiteagatik 15x20an handiagotzea dohain
- Ordu betean erreibelatu

Isabel II, 3
Tfnoa.: 459478

Ugaldetxo
JATETXEA

Banketeak
Agur-afariak
Jaunartzeak

Goizueta bidea
(Hernanitik 9 kilometrotara),
Ereñozu • Tfnoa.: 55 02 40